

Gazteek atzerakarga handiagoa nahi dute euskaraz?

Julian Maia Larretxea
Bilboko Irakasle Eskola, UPV-EHU

Artikulu honetan egileak proposatzen eta argudiatzen du euskaraz eginiko testu azalpen-argudiozkoen ugaritzeak ekartzen ari duela bilakaera oraintsu arte izan diren ideietan euskarazko hitz-ordenari dagokionez, idatzizko prosa logiko-diskurtsiboaren eremuan. Testuinguru horretan ikerlan bat aurkezten da non erakusten den nolako irizpideak adierazten dituzten bi inkestatu multzok, desberdinak direnak euskarazko kompetentzia-mailan: goien mailako aditu talde bat eta gazte unibertsitario talde bat. Emaitzetan ageri da adituen taldeak joera handiagoa erakusten duela atzerakarga txikitzeko, gazte unibertsitarioen multzoak baino.

GAKO-HITZAK: Euskara · Hitz-ordena prosan · Atzerakarga · Irizpideen bilakaera.

Do young people want a heavier back-burden in basque?

In this article its author puts forward and argues that the increasing use of Basque in explanatory and argumentative texts is bringing about an evolution in the ideas about the word-order in the Basque written logical-discursive prose. In this context a research work is presented regarding the criteria shown by two samples of users of the language with differing levels of proficiency, in which the most expert group shows a clearer trend towards reducing the back-burden of Euskara than the young students to whom they are compared.

KEY WORDS: Basque Language · Word-Order in Prose · Back-Burden · Evolution in Criteria.

Jasotze data: 2014-12-20 *Onartze data:* 2015-05-21

1. Ikerketaren markoa¹

1.1. Egoera berria

Kontu ezaguna da euskara esparru eta funtzio formal gehiagotan hasi dela erabiltzen joan den mendeko 60ko hamarkadatik honat, lehenago oso guti agertzen baitzen, konparazio batera, hezkuntzaren esparruan edo komunikabideetan eta administrazioan (Euskaltzaindia, 1977). Euskararen hedatze-prozesu hori handitzen eta bizkortzen hasi zen XX. mendeko 80ko hamarkadan. Izan ere, diktadore Franco jenerala hil ondotik erregimen politikoaren aldaketa gertatu zen, eta horrela modua izan zen bertze hizkuntz politika berri batzuk ezartzeko, euskararen aldekoagoak. Hala, agintaritza autonomiko berrien jardunak bidea zabalagoa egin zuen euskara baliatzeko, adibidez, hezkuntzaren eremuan. Jardun horren erakusgarri dira hizkuntza-normalizazioa funtsezko oinarritzeko legeak, Espainia aldeko bi erkidego autonomo euskaldunetan: Euskadiko Autonomia Erkidegoan 1982an hasi zen indarrean normalizazio-legea (Eusko Jauriaritza, 1982) eta Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, urte batzuk geroago (Nafarroako Gobernua, 1986)². Esparru formal berri batzuetan euskara franko jori sartzeak ekarri zuen produkzioa handitzea prosa logiko-diskurtsiboaren alorrean eta ugaritzea euskaraz landuriko testu azalpenekoak eta argudiozkoak. Testu klase horietan euskarak erabilera eta tradizio murriztagoa zuen inguruko erdara indartsuek erdietsia zutena baino (eta hala du oraindik ere): gaztelaniak, frantsesak eta ingelesak aspaldi izan dute estatuen laguntza eta zeregin formal eta informal guzietan baliatu eta garatu dira indar handiarekin³.

1.2. Garatzeko bidearen bila

Beraz, euskara hasi zen tradizio urrixeko esparru berrietan ere erabiltzen, eta horrek hizkuntzari bertze eskakizun batzuk ekarri zizkion. Hala, euskarazko prosa idatziari etorririk behar berriei erantzuteko, hizkuntza-eredu egokiak bilatu behar izan ziren. Testuinguru horretan, jende (profesional) gehiagok sumatu bide zuen beharra hizkuntza-eredu egokia biltzeko eta beretzeko, beren eguneroko jarduneko prosa logiko-diskurtsiboan eroso aritzeko. Kontuan hartzekoa da profesional haietako gehien-gehienek hagitx prestakuntza txikia izan zutela (batere izan bazuten ere) beren oinarritzeko heziketa-prozesu arautuan euskara zeregin horietan erabiltzeko.

Bertzalde, prosa logiko-diskurtsibo idatzia eraikitzeke orduan, alderdi garrantzitsu bat da zalantzarik gabe errandiko elementuen edo sintagmen hurrenkera eraginkorra aurkitzea eta baliatzea, nahiz eta afera hori, oro har, guti samar landu eta

1. Lan hau egiteko UPV-EHuren laguntza izan dugu, EHU10/50 proiektuaren bidez.

2. *Iparralde* erraten zaion lurraldea bertze estatu batean da eta hango hizkuntza-politika diferentea da; horren adierazgarri garbi bat da euskara ez dela hizkuntza ofiziala.

3. Gaur egun gure «inguruko hizkuntza indartsu»tzat hartzen ditugu bai gaztelania eta frantsesa (aspalditik hango eta hemengo euskaldunekin kontaktuan egonak) eta bai ingelese ere. Gaztelaniak eta frantsesak lehen bezain indartsu segitzen dute, eta ingelese, berriz, gero eta maizago agertzen da euskaldun aunitzen eguneroko bizitzan, globalizazioak ekarri duen harat-honat handiaren ondorioz eta batez ere Internet sareak ekarri duen kontaktu-ugaritze erraldoia dela tarteko. Gaur egun ingelese nazioarteko *lingua franca* indartsuena da eta komunikazio-ahalmen handieneko hizkuntza da, hala Europa mailan nola mundu zabalean ere (ikus, bertzeak bertze, Cenoz eta Jessner, 2000; Crystal, 2004).

eztabaidatu zen euskararen normalizazio-prozesuaren hasieran (adibidez, lexikoari garrantzi handiagoa ematen zitzaion; ikus, konparazio batera, Torrealdei, 2014).

Eta zer eredu atera zen nagusi euskararen zabalkunde-garai horretan, non erabilmodu egokiak urgenteki bilatzen bide ziren? Bada, eredu garailearen irizpide nagusiak gehienbat XX. mendearen lehen herenean jaulkiak ziren. Ez da aiantzi behar Azkue bezalako aurrekari baten jardunaren eragina (ikus Hidalgo, 1995), baina 1929an Altubek aurkezturiko ereduak bilduko zuen arrakasta XX. mendearen hirugarren herenean/laurdenean, noiz-eta indartsu abiatu baitzen euskararen normalizazio-ekimena. Eredu horren arrakastaz honela zioen Mitxelenak 1981ean: «[...] Guztiok dakigu, ordea, 1929tik egungo egunera Altuberen *Erderismos* [...] izan dugula beti gidari» (Michelena, 2011: 343). *Erderismos* lanean aurkezturiko irizpideen gauzatze praktikoei osatzen dute eredu nagusi hori⁴, eta haren ezaugarrien artean eragin handikoak dira hauek, gure ustez⁵:

- a) aditzak erranaldiaren gibeledo aldean joan behar du; b) menpeko perpausak haien nagusiek baino lehenago joan behar dute; c) menpeko perpausaren menpekotasuna markatzen duten morfemek perpaus menderatuaren azkenean joan behar dute.

Osagaiak modu horretan ordenatzeak badakar perpausaren elementuen hurrenkera oso desberdina izatea euskararen eta inguruan gehien erabiltzen diren hizkuntza indartsuenetan. Desberdina izatea, ordea, ez da beti mesedegarria edo abantaila, eta goian erraniko irizpide horien arabera jokatzeko dakarkeen/dakartzen arazoaren artean jarri behar da hainbat kasutan nabari-nabaria dela euskaraz mezuak prozesatzea higitzez ere pisuagoa dela, sendorragoa, inguruan kontaktuan dituen hizkuntzetan baino. Bertzela erran: irizpide horiek beteta eginiko prosa idatziak euskarari «atzerakarga» handia dakarkio (Zubimendi eta Esnal, 1993).

1.3. Harturiko ereduaren mugak edo bidearen meharra

Modu desberdinetan definitu izan da *atzerakarga* kontzeptua (Zubimendi eta Esnal, 1993; Kaltzakorta, 2007).

Guk, ikersaio honetan lan-gai dugun atzerakarga motaz, honelatsuko definizio bat proposatuko genuke: atzerakarga da fenomeno bat gertatzen dena erranaldiko elementu batzuk, funtsezkoak direnak mezua gradualki prozesatzeko, jartzen direnean erranaldiaren atzeko aldean eta horrela gibelatzen eta zailtzen denean mezuaren prozesamendua.

4. «Irizpidearen gauzatze praktikoa» erratean adierazi nahi dugu zenbaitetan iritzi edo proposamen batek gero praktikan legetako diharduela nola-eta hain zuzen ere egileak zehazki *proposatu ez duen* formulazio baten gisan; adibidez, ez dugu ikusi inon ere Altubek *Erderismos*-en erraten duenik «euskaraz aditzak atzean joan behar du», baina bertze formulazio-sare batek eta eredu eta adibide jakin batzuk aurkezteak ondorio sinplifikatu horretara eramaten izan du gure ustez aunitzetan (ikus, osagarri, hurrengo oin-oharra ere).

5. Ereduaren ezaugarri horiek honako iturri hauetatik atera edo/eta ondoriozta daitezke: 1) *Erderismos* laneko hainbat orritan ageri diren adibide «ereduzkoetatik»: 17, 114, 153, 183-184, 193...; 2) bertze autore batzuk erranikoetatik (adibidez, Arejita, 1983: 9; 3) ikus orobat Maia, 2014.

Atzerakarga handiko erranaldi baten adibide bat jartzen dugu segidan (hemendik hartua: Kaltzakorta, 2007):

*Donostiako alkateak errauste plantaren behin betiko kokagunearen erabakia atzeratzeko bere taldearen arrazoiak aipatzen dituen **idatzi bat eraman zuen** atzoko bilerara.*

Erranaldi hori bera atzerakarga txikiagoarekin ere antola daiteke:

*Donostiako alkateak atzoko bilerara **idatzi bat eraman zuen**, aipatzen duena zein arrazoi dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean.*

Goiko adibide horietan aditz nagusia eta osagarri zuzena elementu funtsezkoak dira erranaldiaren erran-nahia prozesatzeko eta aski da ikustea non kokatuak diren antolamendu bietan: bigarrenen franko lehenago jarriak dira, eta, ondorioz, antolamendu horrek atzerakarga txikiagoa du eta errazago prozesatzen da informazioa arian-arian⁶.

Atzerakargaren ondorio bat da hainbat aldiz irakurleak atzera itzuli behar duela eta erranaldia berriz irakurri behar duela. Horrela, kontuan harturik euskarak bizi eta garatu behar duela ingurune gero eta eleaniztunago batean (Lasagabaster, 2000; Gorter *et alii*, 2014), euskararen lehiakortasuna ttikitu egiten da, zeren komunikazioaren ikuspuntutik efizientzia txikiagokoa gertatzen baita inguruko hizkuntzak baino (ikus, adibidez, Aristegieta, 2009; Amuriza, 2012). Bertzela erran dezagun: elementuen hurrenkera berezi eta desberdin hori hainbatetan desabantaila ez bertzerik gertatzen da euskararentzat, inguruan dituen hizkuntza bizikide eta lehiakideen aldean.

Bertzalde, atzerakargaren aferak badu zerikusia erranaldiaren luze-laburrarekin: arazo hori beharbada ez da nabarituriko erranaldi labur-laburretan, baina hobeki agerizaten da erranaldiko elementuek zenbapaiteko luzera izaten dutenean.

Horrela, bada, euskararen erabilera ugaritzen delarik testu konplexu azalpenezko eta argudiozkoetan (prosa logiko-diskurtsiboan), muga eta eragozpen batzuk detektatzen dira hitz-ordenaren ereduan. Arazo hori aurkitzean iritzi eta proposamen desberdinak agertzen dira, helburua dutenak atzerakarga ttikitzea, zertako-eta azken finean euskarazko prosa idatziaren komunikazio-efizientzia hobetzeko. Ildo horretako ekarpenentzat hartzen ahal dira honako hauek, bertzeak bertze: Zubimendi eta Esnal, 1993; Hidalgo, 1994, 2002; Alberdi eta Sarasola, 2001; IVAP, 2005; Berria, 2006; Kaltzakorta, 2007; Aristegieta, 2009, 2012; Amuriza, 2010, 2012;

6. BBertze erranaldi bat, atzerakarga hagitez ere handiagokoa, ekartzen dute Esnalek eta Zubimendik 1993ko lanean. Hartan ederki ikusten da menpeko perpaus kausalaren erran-nahia ezin dela ongi jaso harik eta prozesatu arte amaierarako utzi diren elementu giltzarri batzuk (hain zuzen ere aditza eta kausaltasuna adierazten duen morfema: «eratu zutelako»): «Hau egin ahal izan zen, lehenik, konkistatutako herriak (estatu amerikar gutxi batzuk, nazio aborigen gehienek aurre egin bait zuen) gauza izan ez zirelako garaiz erreakzionatzeko gainera etorri zitzaizenaren tamaina danteskoaren aurrean, eta **inbasoreek** egoera bera mantentzeko bortxaketa fisikoan eta ideologikoan, arrazakeria aberegarrian, iraganaren mistifikazioan, beste kulturekiko arbuioan eta, azken finean, beste gizarte desberdinen funtzionamendua ulertzeko gaitasun-ezean oinarritutako sistema konpultsibo konplexu bat **eratu zutelako**; [...]» (Zubimendi & Esnal, 1993: 173).

Euskaltzaindia, 2011; Agirre, 2013. Proposamen horiek guziak batera hartzen badira norabide aldaketa nabaritzen ahal da, oro har: normalizazio-prozesuaren hasieran garapen bide nagusia *Erderismos*-en jarraitzailetzan jartzen zen, baina goiko proposamen sorta horrek bertze norabait begira jartzen du hiztuna euskarazko prosa-eredua eraikitzeako orduan.

1.4. Irakasleen jokabidearen garrantzia

Prosa garatzeko eredu bizia eta eraginkorra aurkitzea eta baliatzea erabakigarria da euskararen etorkizunarentzat, zeren euskal hizkuntzak testuinguru eleaniztunean bizi beharko baitu eta hartan gero eta jende gehiago izanen baita bi edo gehiago hizkuntza erabiliko dituen eguneroko jardunean. Hiztun eleaniztunak, hartara, hainbatetan aukera izanen du hizkuntza bat edo bertzea hautatzeko, bere informazio- eta komunikazio-beharrak asetzeko. Hizkuntza-eredu malgua eta lehiarako prestatua behar da, beraz.

Marko nagusi horretan hezkuntza-sistemari lehen mailako zeregina eta ardura egozten zaio hiztunen hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeko (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 2010). Hizkuntzaren bidez komunikatzeko konpetentzia hori maila hobereenera eramateko, berriz, ingurune eleaniztunean, funtsezkoa da hizkuntza-erabiltzaileek eskura edukitzea orientabideak eta baliabideak, idatzizko prosa arina eta efizientzia handikoa eraikitzeako euskaraz. Horregatik da garrantzitsua jakitea, oro har, ikasmaila guzietako irakasleek zer-nolako irizpideak erabiltzen dituzten erranaldiko elementuen hurrenkerak balioesteko, bat hobesteko eta bertzea gaitzesteko, bat lehenesteko eta bertzea «ondoko-esteko», zeren hori jakiteak argia emanen baitu gai honetan irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzan eragiteko.

Horixe da, hain zuzen, azterketa honek ekarri nahi duena: informazioa biltzen hasi nahi du jakiteko nolako joerak ageri diren hitz-ordenaren (hobe sintagmen ordenaren) alorrean hezkuntzaren esparruko hizkuntza-erabiltzaile profesionalen artean (azterketan lagundu diguten inkestatuak hala dira, maila desberdinetan ari baldin badira ere) eta zenbateraino dauden oraindik indarrean ideia batzuk nagusi ibili zirenak euskararen normalizazio-prozesuaren hasieran, edo noraino ari diren hedatzen irakasle-lanbidekoen artean proposamenak edo joerak hitz-ordena bertze modu («berriago») batean antolatzeke. Azterketa honetan lagundu digutenek ez dute ordezkatzeko irakasle-lanbideko guzien jarduna, oro har, baina bai eskaintzen digute informazioa gaian ikertzen hasteko, orain arte ezagutzen ez dugun alor horretan. Azken batean, ikergai zabal horretan, lan hau hasierako urrats bat bertzerik ez da, bertze batzuekin osatu eta zehaztu beharra.

2. Ikerketa

Ikerketa honen bidez euskararen hitz-ordenaren alorra aztertu nahi izan dugu; izan ere, faktore horrek eragin handia du euskaraz lehiarako aski den dinako komunikazio-efizientzia erdiesteko. Zehazki, alde batetik jakin nahi izan dugu nolako irizpideak baliatzen diren maila ohartuan euskaraz idatziriko erranaldi

franko luze batzuetan, eta bertzetik ea ba ote den seinalerik gai horretan gertatzen ari daitekeen eboluzioaz. Horretarako, gero xeheroago azalduko den bezala, hezkuntzaren eremuan sartuko gara eta hartan ari diren bi hiztun-talde desberdinen iritziak aztertuko ditugu inkesta batzuen bidez, kontuan hartuta bi inkestatu-talde horiek nahiko ezaugarri desberdineko multzoak osatzen dituztela, eta hortaz bide ona eskaintzen digutela haien arteko balizko kontrasteak analizatzeko, testuinguru dinamiko batean.

2.1. Aurrekari bat

Jarraian aurkeztuko dugun ikerketa-fase honen berri zehatza ematen hasi aitzin, behar dela iduritzen zaigu lehenagotik azaltzea azterketa honen bertze atal batean erdietsiriko emaitza batzuk, hartara testuinguru zabalxeago baten berri emateko eta ikerketa-atal honen emaitzen zentzua hobeki erakusteko.

Ikerketa honen aitzineko atal batean aztertu zen hezkuntzaren eremuan ari diren bi hiztun multzo desberdinek nolako joera erakusten zuten atzerakargari begira (ikus atzerakargaren definizioa testu honetan goitiago). Bi multzo horiek honela osatuak ziren: alde batetik, bazen goi-mailako adituen talde bat, 8 lagunez osatua, bigarren fase honetan ere eskuzabal lagundu diguna; eta bertzetik, UPV-EHUko Irakasle Eskoletako Lehen Hezkuntzako Graduko lehen ikasturteko ikasleen lagin bat, 2011-2012 ikasturtekoa, 212 lagun denetara⁷. Bi taldeei erranaldi sorta bera aurkeztu zitzairen. erranaldi horiek atzerakarga ttikiko antolamenduan emanak ziren, eta denei eskatu zitzairen erranaldi haiek zuzentzeko, baldin eta zerbait okerra bazen erranaldian, onargarria ez zena⁸. Ikertu nahi zen ea inkestatuek ontzat ematen zituzten aurkezturiko erranaldiak (atzerakarga txikiarekin emanak), edo beharra sumatzen ote zuten haien elementuen ordena aldatzeko eta atzerakarga handitzeko, adibidez idatzian aditza gibelago edo «eskuinerago» jarrita. Erranaldien kopuru handiari buruzko datuak biltzeko asmoarekin (65 item analizatu ziren), inkestatuei jakinarazi zitzairen hitzen ordenari erreparatu behar ziotela bereziki, nahiz eta ohartzen ginen ohar horrek ultrazuzenketarako joera eragin zezakeela, zuzentzaileen (inkestatuen) arreta hartaraten duen neurrian⁹. Aldez aurretik erran nahi dugu, halaber, emaitzek ez dutela adierazten inkestatuek zehazki zer jokabide erabiltzen duten euren idatziak eraikitzeke orduan: ikerketa honetan ez da bilatu inkestatuek nolako hitz-ordena erabiltzen duten euren egiazko produkzio idatzietan, baizik eta zer irizpide edo hobespen erakusten duten gai honetaz «ezagutza deklaratioa»ren mailan (Eusko Jaurlaritzza-HABE, 2005).

Azterketa hori eginik, haren emaitzetatik aipatzekoak dira datu orokor hauek:

7. 8 laguneko taldekoak goien mailako aditutzat jo daitezke, eta hala deituko diegu (*adituak*, *aditu taldea*); 212 kideko ikasle taldekoei, berriz, *gazteak* edo *ikasleak* erranen diegu. Bi multzoetako kideei erreferentzia egiteko biei batera, *laguntzaile* edo *inkestatu* hitzak baliatuko ditugu. Haiei denei eskerrak eman nahi dizkiegu beren eskuzabaltasun handiagatik.

8. 1. eranskinean ikus daiteke zer jarraibide eman zitzaizkien inkestatuei beren zuzentze-lana egiteko.

9. Gure hautua azaltzeko, kontuan hartu behar da ezen zenbatez inkestan item gehiago jarri, hainbatez denbora gehiago eskatuko geniola inkestatu laguntzaile guzietan, gaur egungo mundu lasterkako honetan. Item asko analizatzea hautatu zen, aukerako bideen artean.

- emaniko item guziak aztertuta, eta batez bertzekoetan, adituen multzoak atzerakarga handitzeko joera erakutsi zuen % 17an; ikasleek, berriz, atzerakarga handitu nahi zuten % 61ean; aldea nabaria da: adituek aisa errazago onartu zituzten atzerakarga txikiko hurrenkerak (% 40 baino gehiagoko aldea);
- bertzalde, adituen taldeko kideek item aunitzetan erakutsi zuten atzerakarga txikiko hurrenkera onartzeko joera berehala, aldaketarik egin gabe: zehazki, 65 itemetatik 34tan (% 52), adituek onartu egin zuten atzerakarga txikiko ordenamendua; ikasleen artean, ordea, item bakar bat ere ez zen izan denek zuzendu gabe utzi zutenik, eta gutien zuzendu zirenak ikasleen % 18k eta % 24k zuzendu zituzten.

Datu horiek erakusten dute adituek joera handiagoa dutela atzerakarga txikiagoko hurrenkerak onartzeko, eta gazteek, berriz, gehiago jotzen dutela zuzentzera atzerakarga txikiko itemak eta hobestera atzerakarga handiagoko ordenak. Emaizta hauek interesgarriak dira orain honen segidan azalduko dugun inkestaren bertze ataleko datuekin konparatzeko eta haiekin batera analizatzeko¹⁰.

2.2. Ikerketaren bigarren atala

Aurrean labur-labur azaldu ditugun datuen ondotik, ikerketaren lehen atalari dagozkionak, ikerketaren bigarren atala aurkeztuko dugu.

2.2.1. Ikerketako galderak

Kontuan hartzen dugu, hasteko, hainbat adituk eta alor desberdinetako profesionalak hainbat proposamen egin dituztela euskararen atzerakarga tikitze edo atzerakarga txikiagoko eredia erabiltzeko (Zubimendi eta Esnal, 1993; Hidalgo, 1995, 2002; IVAP-HEAA, 2005; Berria, 2006; Kaltzakorta, 2007; Aristegieta, 2009; Agirre, 2013...). Gure ustez, izan ere, bada jendea jaidura erakusten duena norabide horretan, baita korrante bat osatzeraino ere (Maia, 2014), eta hori dela-eta, honako ikergaldera hauek planteatu ditugu: 1) azterketan izan ditugun laguntzaileek zenbateraino hobesten dituzte atzerakarga handiagoko hurrenkerak?; 2) bi laginek (bat, goi-mailako adituz osatua, eta bertzea unibertsitateko ikaslez egina) joera bera erakusten dute eta gradu berean?

2.2.2. Datuak biltzea eta tratatzea

Inkestatuak. Bi inkestatu taldek lagundu digute, erran bezala. Goi-mailako adituen taldea 8 irakaslez osatua da; denak unibertsitate-mailan ari dira (bat izan ezik, baina haren ibilbideak erakusten du ederki pareka daitekeela unibertsitateko espezialistekin): haien artean badira euskaltzainak, badira unibertsitateko katedradunak, eta badira unibertsitate-mailan ari diren estilo-espezialistak ere. Denak oso eguneratuak direla erran daiteke, eta gaur egungo testu azalpenezkoetan eta argudiozkoetan aski ongi ohituak. Esperientzia luzea eta sakona dute hizkuntzaren erabilera formalekin ihardukitzen. Adinez, 40 urtetik goiti dira denak, eta beraz

¹⁰. Zati horren emaitzak eta bertzelako xehetasunak zehazkiago ikasi nahi izanez gero, ikus bedi Maia eta Larrea, 2013.

gaurko unibertsitateko ikasleen aurreko belaunaldikotzat jo daitezke. Zuzenean bizi izan dute euskararen normalizazio-prozesua urte aunitzetan (erran liteke, batez bertze, prozesu hori guzia lehen pertsonan bizi izan dutela «bizi guzian»). Erratekoa da, bertzalde, aditu talde horretako kideak hautatzeko ez dela erabili ezin irizpide estatistikorik, eta beraz ez dugu erranen kolektibo honen edo haren ordezkari zehatzak direnik; baina bai dira talde aski uniformeak (adinez, hizkuntza-esperientziaz eta prestakuntzaz), gutienez pentsatzeko eta defenditzeko haiengan aurki daitezkeen joerak jendartean existitu bederen existitzen direla hain zuzen ere goi-mailako prestakuntzako hizkuntza-espezialisten artean: haien emaitza zehatzak (ehunekoetan eta) ez ditugu estrapolatzen belaunaldi edo kolektibo profesional jakin bat edo bertze zehazki ordezkatzearaino, baina bai dira behar bezain baliozkoak zertako-eta gutienez errateko haien jardunaren bidez ageri diren joerek badutela nolabaiteko presentzia euskararen profesionalen artean. Bertzalde, gehienak euskaldun zaharrak dira, eta hizkuntza etxean txikitik ikasi ez dutenak ere hagitik aspaldi ari dira euskaraz (baimenarekin, «euskaldun berri zaharrak» direla erranen genuke¹¹).

Bertze inkestatu taldea 187 ikaslez osatua da eta bertze ezaugarri batzuk ditu. Unibertsitateko ikasleak dira, euskaraz egin dituzte ikasketak, Lehen Hezkuntzako irakasle izateko ikasten ari dira UPV-EHU, EAeko hiru campusetako Irakasle Eskoletan, eta adinez hogeitun urteren inguruan dira, batez bertze. Gutxi gutxi-beheiti (batez bertze) erran liteke 1990 urtearen inguruan jaiotakoak direla edo hortxe-hortxe eskolan hasiak. Beraz, kontuan hartzekoa da zein irizpide izan ote dituzten hitz-ordenari buruz beren hezkuntza-ibilbidean. Adituen taldeko kideen aldean, bertze belaunaldi bat osatzen dute. Hizkuntzaren erabilera formalarekin duten esperientzia ez da adituen taldeko kideek duten adinakoa (laburragoa da eta testu formalekin duten harremana txikiagoa dela erran liteke, batez bertze, adinarengatik eta orotariko hizkuntza-esperientziarengatik), baina aipatzekoa da euren ikasketa guziaz euskaraz egin dituztela, eta adituek ez bezala, hezkuntza arautu arruntean jaso dutela euskarari buruzko prestakuntza. Lagineko ikasle horien ordezkariaren dagokionez, berriz, hau erranen dugu: 2011-2012 ikasturtean 517 ikasle ari ziren Lehen Hezkuntzako Graduan lehen mailan matrikulatuak euskarazko adarretan UPV-EHUko hiru campusetako Irakasle Eskoletan, eta ikerketa honetako inkestari 187 ikasle erantzun zioten, hau da, unibertso guziaren % 36k. Inkestari boluntario erantzun zioten, eskola-egun arrunt batean, haien irakasleen lankidetzaren ezinbertzearen laguntzarekin¹².

Analizaturiko itemak eta analizatzeko prozedura. Lehenbiziko, 24 perpaus edo erranaldi hautatu dira, luze xamarrik: txikiak 35 silaba ditu, eta luzeenak 93; 64

11. Dena dela, ikerketa honetan faktore horren erabakigarritasuna ez da, ustez, hain handia: gogora dezagun ez dugula aztertzen inkestatuen jardun «naturalik» edo «automatizaturik», hiztunak izan lezakeen euskarazko ezein «erabilera berezkorik», «pentsakabearen ateratzen denik» edo «hiztun senak bat-batean agindurikorik», baizik eta gai bati buruz darabilen jakintza «deklaratioa», ohartua, eta begien aurrean «geldirik» dauden erranaldi batzuetan (testuinguru horretan, automatismoaren garrantzia txikiagoa da).

12. Eskerrak eman nahi dizkiegu irakasle hauei, beren lankidetzagatik: Kepa Larrea, Aintzane Etxebarria, Urtza Garay, Ainhoa Ezeiza eta Ander Olalde. Haien laguntzarik gabe ezin izanen genuen lan hau egin.

silaba lituzke ikerketa honetako «batez bertzeko perpausak»¹³. Oinarrizko perpaus horietako bakoitza azterketa honetarako item bat da. Perpaus horien osagaiak edo elementuak hiru modutan ordenatu dira eta horrela antolaturiko erranaldi guzietan betetzen dute kondizioa gramatikalak direla. Gisa horretan jarririko erranaldi bakoitzak atzerakarga desberdin bat izanen du; item bakoitzeko, hiru antolamendu izanen ditugu, eta, beraz, hiru atzerakarga desberdin. Erabiliriko metodologiaren arabera aztertzaileok badugu txantilo bat zeinekin konparatu inkestaturen erantzunak: txantilo horretan esleitua dugu item bakoitzean zein antolamendu den atzerakarga txikieneko, zein tartekoa eta zein atzerakarga handieneko¹⁴. Gero, inkestatu bakoitzari eskatuko zaio ezen item bakoitzeko aurkezten zaizkion hiru antolamendu horien artean bereiz dezala zein hobetsiko lukeen, zein nahiago lukeen bigarren, eta zein utziko lukeen azkeneko aukera gisa¹⁵. Eta hondarreko, inkestaturen erantzunak aztertuko dira arestian aipaturiko txantilo horrekin konparatuta, eta ikusiko da ea zenbateraino datozen bat aztertzaileok aurreikusiriko sailkapenarekin, eta horrela modua izanen dugu atzerakargaren zenbateko erlatiboa neurtzeko.

Prozedura horrek bidea ematen digu analizatzeko eta kontrastatzeko ea inkestaturek atzerakarga handiagoko edo txikiagoko hurrenkerak hobesten dituzten 24 itemetako bakoitzean. Honako datu hauek erakutsiko eta aipatuko ditugu hurrengo lerroetan, bertzeak bertze: 1) item bakoitzaren kasuan adituen eta ikasleen taldeek zenbateraino hobesten duten atzerakarga txikieneko antolamendua, edo nahiago duten bertzeren bat, eta horrela informazio zehatza izanen dugu item bakoitzari begira, interesgarria izan daitekeena gogoeta antolatzeke afera honetaz; 2) indize bat aterako dugu, erakusteko zenbateko joera ageri duten batez bertze adituek eta ikasleek atzerakarga txikieneko antolamenduaren alde, bai item bakoitzean bakarka eta bai denak batera hartuta ere; 3) item bakoitzari dagozkion zertzeladez gainera, datuak bilduko ditugu inkestaturen «profilaz» ere, gai honi dagokionez: ikus dezakegu «muturreko jarrera» erakusten duen balizko inkestaturek zenbateko joera duen atzerakarga txikieneko edo/eta handienekoak hobesteko; eta abar.

Analizatu diren itemak zein diren jakiteko, eta bakoitzean zein antolamendu desberdin aurkezten ziren, ikus bedi 1. koadroko lehen zutabea.

2.2.3. *Emaitzak*

Lehenengo emaitza nagusia da 1. koadroan bildu dena: item bakoitzaren aurrean inkestaturek erakutsi duten joera. Koadroan bertan bereizten ditugu adituen

13. Azterketa honetako erranaldiak franko luzeak izatearen arrazoia da atzerakarga fenomeno nabariagoa dela erranaldiak luzeak direnean, eta hain zuzen ere horrelakoak analizatu nahi izan ditugu bereziki. Bertzalde, ohartuak gara inkestako erranaldien luzera eta errepikakortasuna muga metodologikoak izan daitezkeela lan honetan: inkestaturek noiz edo noiz arreta gal dezakete beharbada, eta, ondorioz, menturaz, «nola edo hala» erantzun dezakete (batez ere inkestatu gazte ikasleek, haiei ariketa ikasgela batean pasatu baitzitzaien, non baldintzak ez diren beti hoberenak izaten). Dena dela, erran behar dugu ikerketa-ildo honen lehenbiziko pausoak direla eta emaitzetan gehiago begiratu nahi diegula joerei eta ez lorturiko datuen portzentajeen doitasunari.

14. 1. koadroan bi izartxoren bidez adierazten da (**) zein den atzerakarga txikieneko zatirik onena antolamendua.

15. Bertze aukera batzuk ere eman ziren: hiru erranaldiak berdintzat edo txartzat ematea, bi antolamenduri onespenez maila bera ematea eta bat gaitzestea, eta abar. Inkesta betetzeko idatziz emaniko jarraibideen berri zehatza ikasteko, ikus 2. eranskina.

eta gazte unibertsitarioen emaitzak (2. eta 3. zutabeak); horrela badugu modua haien artean konparazioa egiteko (4. zutabearen ageri da aldea, kenketa batez egina: adituen zutabeko datua ken gazteen zutabeko datua). Koadro horretan biltzen da item bakoitzarentzat zenbat adituk eta zenbat gaztek hautatzen duten atzerakarga txikienerako hurrenkera¹⁶. Aipatzekoa da adituen taldeko kideek joera handiagoa erakusten dutela atzerakarga txikiko ordenak hautatzeko, ezen ez ikasleek: batez berte, adituek % 71n hartzen dute atzerakarga txikienerako aukera, eta ikasleek, berriz, bakarrik % 23an. Desberdintasuna adierazgarria iduritzen zaigu, eta ematen du koherente datorrela honen aurrekari den bertze ikersaio batekin (lehen aipatua eta iruzkin egina), non adituek erakutsi zuten atzerakarga handitzeko joera bakarrik % 16koa zutela, ikasleek aldi berean % 61ean hautatzen zituztelarik erranaldi atzerakargatuak (xehetasun gehiago jakiteko, ikus Maia eta Larrea, 2013).

Bertze alde batetik, erran-nahi handikoa iduritzen zaigu orobat xehetasun handiagoarekin analizatzea bertzelako emaitza batzuk ere. Espero zen bezala, inkestaturik ez dute jarrera bera erakusten item guzietan; batzuetan atzerakarga txikia erraz onartzen da edo hobesten, eta bertze batzuetan, berriz, nahiago izaten da atzerakarga handiagoko aukera. Horrela, garrantzitsua iduritzen zaigu ikustea zein item diren inkestaturik ongi onartzen edo hobesten dituztenak atzerakarga txikienerarekin. Puntu horretan ere desberdintasunak aisa nabari dira adituen eta ikasleen artean:

- adituen taldean, aztergai ziren 24 itemetatik 5etan, kide guztiek hautatu dute atzerakarga txikienerako ordena (itemen % 21ean; ikus 2. koadroa); ikasleen artean item bakar batek ere ez du jaso horrelako ahobatezkotasunik, urrutitik ere;
- ia aditu guztiek (% 87,5ek) hautatu dute atzerakarga txikiko hurrenkera 9 itemetan, 24etatik (itemen % 38tan; ikus 3. koadroa);
- azkenik, adituen % 75ek hautatu dute atzerakarga txikienerako ordena itemen % 63tan; hau da, 24 itemetatik 15etan (ikus 4. koadroa).

Horrek guztiak ematen du aditzera ezen aztergai izan ditugun aunitz item kontsideratzen ahal direla erraz erabiltzekoak atzerakarga txikienerako ordenamenduarekin; inkestaturiko adituarentzat, alegia, aunitz kasutan ez dela hoberena ordenamendu atzerakarga handiagoko erabiltzea, nahiz eta hala eskatuko lukeen *Erderismos* liburuan azaltzen den joeraren jarraipen ortodoxo zurrinak.

Adituen datu horiek, ordea, kontraste nabaria egiten dute ikasleen emaitzekin (datu guztiak ikusteko, 1. koadroa). Emaitza horietan aipatzekoak dira honako hauek:

16. Adibidez, lehenengo itemean adituen % 25ek bereizi du atzerakarga txikienerako antolamendua ordena egokiena gisa, eta item berean ikasleen % 10,8k bakarrik lehenesten du atzerakarga txikienerako hurrenkera hori; hau da: bi zifra horien arteko kenketa eginda ikusten da adituek, arabera, % 14,2 gehiagotan jotzen dutela atzerakarga txikienerako ordena hobestera ($25 - 10,8 = 14,2$). Hots, bertze item guzietan bezala, adituek joera handiagoa erakusten dute atzerakarga txikiko hurrenkerean alde.

1. item bakar batean ere ikasleek ez dute erakutsi iritzi-batasunik atzerakarga txikienerako ordenamenduen alde, ez eta hurrik eman ere (ikus 1. koadroa);
2. ez da itemik bat ere izan zeinetan ikasleek gainditu duten % 50eko atxikimendua atzerakarga txikienerako hurrenkerentzat (hiru itemetan bai hurbiltzen dira: 12., 19. eta 22. itemetan) (ikus 1. koadroan);

Inkestaturen profiletan ere diferentzia nabariak ikusten dira berriz ere adituen eta ikasle unibertsitarioen artean. Honako hauek aipatzekoak iduritzen zaizkigu:

- adituen taldetik, zortzitik bik (% 25ek) joera handi-handia erakusten dute atzerakarga bere maila txikienera ekartzeko: itemen % 90 baino gehiagotan;
- adituen taldean, atzerakarga txikienera ez den bertzeren bat gehien hautatzen duen inkestatuak itemen % 54an erakusten du joera hori;
- gazteen taldean, berriz, atzerakarga txikitze joera handiena erakusten duenak irizpide hori erakusten du itemen % 83an;
- gazteen taldean, dena dela, atzerakarga txikiaren zaleak hagitx guti dira: bakarrik inkestaturen % 11k txikitzen du atzerakarga itemen % 50 baino gehiagotan;
- ikasleen taldean badira 6 kide, atzerakarga txikia errefusatzen dutenak item guzi-guzietan (taldekideen % 0,3; ehuneko txikia da baina adierazgarria iduritzen zaigu);
- azkenik, bertze datu bat bi taldeen arteko kontrastea seinalatzeko: adituen % 45 bat dator bete-betean erranaldiak atzerakargaren faktorearen arabera ordenatzeko, txikitik handira, txantiloian aurreikusten zen ordenaren arabera; baina, kontrastean, ikasleen % 6,5ek bakarrik egin du hautu hori.

1. koadroa. Aztertutako item guziak eta haien emaitzak (adituen eta ikasle gazteen taldeak): zenbaterik lehenesten duen atzerakarga txikienerakotzat joriko hurrenkera, ehunekotan (bi izartxorekin markatua dena: **).			
AZTERTURIKO ITEMAK	ADIT. (%)	GAZ. (%)	ALDEA (%)
1a) Berriz ere nabarmena da irakasleak , ikasleek ematen dituzten berehalako adibideetatik abiatuta, azalpena zabaltzeko egiten duen ahalegina . 1b) Berriz ere nabarmena da irakasleak egiten duen ahalegina azalpena zabaltzeko , ikasleek ematen dituzten berehalako adibideetatik abiatuta. ** 1c) Berriz ere nabarmena da irakasleak azalpena zabaltzeko egiten duen ahalegina , ikasleek ematen dituzten berehalako adibideetatik abiatuta.	25	10,8	14,2
2a) Geometria , gorputzen tamainaz, formaz eta posizio erlatiboaz eta espazioaren propietatez arduratzeko den matematikaren ataletako bat da . 2b) Geometria da matematikaren ataletako bat , gorputzen tamainaz, formaz eta posizio erlatiboaz eta espazioaren propietatez arduratzeko dena . 2c) Geometria matematikaren ataletako bat da, arduratzeko dena gorputzen tamainaz, formaz eta posizio erlatiboaz eta espazioaren propietatez. **	37,7	5,9	31,8

<p>3a) Bygate-k desberdintzen ditu jakintzak eta trebetasunak. Jakintzak dira dakizkigun informazioak, gogoan hartuak ditugunak, eta haietan sartzen dira bai hizkuntzaren sistema menperatzea eta baita kulturarekin loturiko beste hainbat afera ere. **</p> <p>3b) Bygate-k desberdintzen ditu jakintzak eta trebetasunak. Jakintzak, dakizkigun, gogoan hartuak ditugun informazioak dira, eta haietan, bai hizkuntzaren sistema menperatzea eta baita kulturarekin loturiko beste hainbat afera ere sartzen dira.</p> <p>3c) Bygate-k jakintzak eta trebetasunak desberdintzen ditu. Jakintzak, dakizkigun informazioak, gogoan hartuak ditugunak dira, eta haietan, bai hizkuntzaren sistema menperatzea eta baita kulturarekin loturiko beste hainbat afera ere sartzen dira.</p>	62,5	10,8	51,7
<p>4a) «No es lo mismo hablar en clase de mates, o hablar de mates en clase». Zalantzarik gabe, bigarrenaren aldeko apustu garbia egiten du autoreak, azpimarratuz elkarrizketa horrek nola laguntzen dien ikasleei matematikaren gainean gero eta konplexuagoak eta osatuagoak diren ezagutza-eskemak eraikitzen.</p> <p>4b) «No es lo mismo hablar en clase de mates, o hablar de mates en clase». Zalantzarik gabe, bigarrenaren aldeko apustu garbia egiten du autoreak, elkarrizketa horrek ikasleei nola laguntzen dien matematikaren gainean gero eta konplexuagoak eta osatuagoak diren ezagutza eskemak eraikitzen azpimarratuz.</p> <p>4c) «No es lo mismo hablar en clase de mates, o hablar de mates en clase». Zalantzarik gabe, bigarrenaren aldeko apustu garbia egiten du autoreak, eta azpimarratzen du elkarrizketa horrek nola laguntzen dien ikasleei matematikaren gainean gero eta konplexuagoak eta osatuagoak diren ezagutza eskemak eraikitzen. **</p>	100	25,8	74,2
<p>5a) Ondoko adibidean, ahozko elkarrekintzaren bidez ikasleek ikaskuntza objektuaren edo ikasi beharreko edukiaren transformazioan nola parte hartzen duten ikusi ahal izango dugu.</p> <p>5b) Ondoko adibidean ikusi ahal izango dugu ikasleek ahozko elkarrekintzaren bidez ikaskuntza objektuaren edo ikasi beharreko edukiaren transformazioan nola parte hartzen duten.</p> <p>5c) Ondoko adibidean ikusi ahal izango dugu ikasleek nola parte hartzen duten ahozko elkarrekintzaren bidez ikaskuntza objektuaren edo ikasi beharreko edukiaren transformazioan. **</p>	100	30,6	69,4
<p>6a) Eta gero, buruketa horren talde irakurketa egin zuten. Talde irakurketa horren helburua ikasle guztiak buruketa ulertu zutela ziurtatzea zen.</p> <p>6b) Eta gero, buruketa horren talde irakurketa egin zuten. Talde irakurketa horren helburua zen ikasle guztiak buruketa ulertu zutela ziurtatzea.</p> <p>6c) Eta gero, buruketa horren talde irakurketa egin zuten. Talde irakurketa horren helburua zen ziurtatzea ikasle guztiak buruketa ulertu zutela. **</p>	75	11,3	63,7
<p>7a) Hizkuntza eta curriculumeko ikasgaiak integratzeak esan nahi du ikasleak esanahia eta hizkuntza-forma negoziatzeko aukerak izango dituela.</p> <p>7b) Hizkuntza eta curriculumeko ikasgaiak integratzeak, ikasleak esanahia eta hizkuntza forma negoziatzeko aukerak izango dituela esan nahi du.</p> <p>7c) Hizkuntza eta curriculumeko ikasgaiak integratzeak esan nahi du ikasleak aukerak izango dituela esanahia eta hizkuntza forma negoziatzeko. **</p>	87,5	17,2	70,3
<p>8a) Egile horiek beste printzipio bat ere izatea baliagarria eta beharrezkoa dela uste dute: autonomiaz ikasteko eta irakasteko modu askoren objektu bihurtzea ahozko hizkuntza.</p> <p>8b) Egile horiek uste dute baliagarria eta beharrezkoa dela beste printzipio bat ere izatea: autonomiaz ikasteko eta irakasteko modu askoren objektu bihurtzea ahozko hizkuntza. **</p> <p>8c) Egile horiek uste dute beste printzipio bat ere izatea baliagarria eta beharrezkoa dela: autonomiaz ikasteko eta irakasteko modu askoren objektu bihurtzea ahozko hizkuntza.</p>	100	44,1	55,9

<p>9a) Sekuentzia didaktikoa hizkuntza-jarduera baten inguruan sistematikoki antolatutako eskola-aldi batzuen multzoa dela esanez defini daiteke.</p> <p>9b) Sekuentzia didaktikoa defini daiteke esanez hizkuntza jarduera baten inguruan sistematikoki antolatutako eskola-aldi batzuen multzoa dela.</p> <p>9c) Sekuentzia didaktikoa defini daiteke esanez eskola-aldi batzuen multzoa dela, hizkuntza jarduera baten inguruan sistematikoki antolatua. **</p>	50	13,4	36,6
<p>10a) Eredu didaktikoak genero baten osagaien deskripzioa egiten du hura irakasteko, hau da, genero bateko zein eduki bihur daitezkeen ikaste eta irakaste prozesurako gai zehazten du.</p> <p>10b) Eredu didaktikoak genero baten osagaien deskripzioa egiten du hura irakasteko, hau da, zehazten du genero bateko zein eduki bihur daitezkeen ikaste eta irakaste prozesurako gai.</p> <p>10c) Eredu didaktikoak genero baten osagaien deskripzioa egiten du hura irakasteko, hau da, zehazten du genero bateko zein eduki bihur daitezkeen gai ikaste eta irakaste prozesurako. **</p>	62,5	16,7	45,8
<p>11a) Nik ez dut inoiz ere ikusi irakaslerik bere irakasgaiari garrantzi txikia ematen dionik. **</p> <p>11b) Nik ez dut inoiz ere ikusi bere irakasgaiari garrantzi txikia ematen dion irakaslerik.</p> <p>11c) Bere irakasgaiari garrantzi txikia ematen dion irakaslerik nik ez dut inoiz ere ikusi.</p>	75	12,4	62,6
<p>12a) Ez da modu bat bakarra kontzeptu hori ulertzeko, baina denak bat datoz esatean oinarritzko kompetentziak funtsezkoak direla jende ororentzat eta jendarte guztiarentzat. **</p> <p>12b) Ez da modu bat bakarra kontzeptu hori ulertzeko, baina oinarritzko kompetentziak funtsezkoak direla jende ororentzat eta jendarte guztiarentzat esatean denak bat datoz.</p> <p>12c) Ez da modu bat bakarra kontzeptu hori ulertzeko, baina oinarritzko kompetentziak jende ororentzat eta jendarte guztiarentzat funtsezkoak direla esatean denak bat datoz.</p>	75	47,8	27,2
<p>13a) Zeregin batean edo alor batean konpetente izateak esan nahi du gai izatea alor horretako egoera edo arazo batzuei aurre egiteko behar diren jakintzak aktibatzen eta erabiltzeko.</p> <p>13b) Zeregin batean edo alor batean konpetente izateak esan nahi du gai izatea behar diren jakintzak aktibatzen eta erabiltzeko, alor horretako egoera edo arazo batzuei aurre egiteko. **</p> <p>13c) Zeregin batean edo alor batean konpetente izateak, alor horretako egoera edo arazo batzuei aurre egiteko behar diren jakintzak aktibatzen eta erabiltzeko gai izatea esan nahi du.</p>	50	7	43
<p>14a) Eskola instituzioak paper garrantzitsua betetzen du hitzunen komunikazio konpetentzia garatzeko orduan, zeren bertan zehazki planifika baitaitezke jardunak ikasle konkretuek sarbidea izan dezaten komunikazio-jardun bereziagoak ikasteko. **</p> <p>14b) Eskola instituzioak hitzunen komunikazio konpetentzia garatzeko orduan paper garrantzitsua betetzen du, zeren bertan zehazki planifika baitaitezke jardunak ikasle konkretuek sarbidea izan dezaten komunikazio-jardun bereziagoak ikasteko.</p> <p>14c) Eskola instituzioak hitzunen komunikazio konpetentzia garatzeko orduan paper garrantzitsua betetzen du, zeren bertan, ikasle konkretuek komunikazio-jardun bereziagoak ikasteko sarbidea izateko jardunak zehazki planifika baitaitezke.</p>	100	34,9	65,1

<p>15a) Sekuentzia Didaktikoak egokitu daitezke. Moduluen antolamenduak gela edo talde batean egoera jakin batek izan ditzakeen beharretara egokitzeko aukera eskaintzen du.</p> <p>15b) Sekuentzia Didaktikoak egokitu daitezke. Moduluen antolamenduak aukera eskaintzen du egokitzeko gela edo talde batean egoera jakin batek izan ditzakeen beharretara. **</p> <p>15c) Sekuentzia Didaktikoak egokitu daitezke. Moduluen antolamenduak aukera eskaintzen du gela edo talde batean egoera jakin batek izan ditzakeen beharretara egokitzeko.</p>	50	3,2	46,8
<p>16a) Erakutsiko dizkizut ingeleseko hizkuntza azterketa hori gainditzeko erabili behar dituzun estrategiak.</p> <p>16b) Erakutsiko dizut zer estrategia erabili behar dituzun ingeleseko hizkuntza azterketa hori gainditzeko.</p> <p>16c) Erakutsiko dizut zer estrategia erabili behar dituzun gainditzeko ingeleseko hizkuntza azterketa hori. **</p>	12,5	2,7	9,8
<p>17a) Badugu garaia hurrengo denboraldian ekipoaren entrenatzailea nor izango den pentsatzen hasteko.</p> <p>17b) Badugu garaia pentsatzen hasteko hurrengo denboraldian ekipoaren entrenatzailea nor izango den. **</p> <p>17c) Hurrengo denboraldian ekipoaren entrenatzailea nor izango den pentsatzen hasteko garaia dugu.</p>	75	18,8	56,2
<p>18a) Baina frankismoaren hizkuntza-zapalketarekin batera, demokrazia aurretik herri-aginteen utzikeria euskararen erabilerari zegozkion kontuetan betidanik ohikoa izan zela kontuan hartzea ezinbestekoa dugu.</p> <p>18b) Baina ezinbestekoa dugu frankismoaren hizkuntza-zapalketarekin batera kontuan hartzea demokrazia aurretik betidanik ohikoa izan zela herri-aginteen utzikeria euskararen erabilerari zegozkion kontuetan.</p> <p>18c) Baina ezinbestekoa dugu kontuan hartzea, frankismoaren hizkuntza-zapalketarekin batera, herri-aginteen utzikeria demokrazia aurretik betidanik ohikoa izan zela euskararen erabilerari zegozkion kontuetan. **</p>	75	38,7	36,3
<p>19a) Baina euskarak gizartean urteetan eta mendeetan izan duen atzerakadaz dihardugula, ezinbestekoa delakoan gaude hemen bertan esana uztea, faktore politiko eta instituzionalen ondoan, faktore ekonomiko eta sozialek ere badutela eragina. **</p> <p>19b) Baina euskarak gizartean urteetan eta mendeetan izan duen atzerakadaz dihardugula, faktore politiko eta instituzionalen ondoan, faktore ekonomiko eta sozialek ere badutela eragina hemen bertan esana uztea ezinbestekoa delakoan gaude.</p> <p>19c) Baina euskarak gizartean urteetan eta mendeetan izan duen atzerakadaz dihardugula, ezinbestekoa delakoan gaude, faktore politiko eta instituzionalen ondoan, faktore ekonomiko eta sozialek ere badutela eragina hemen bertan esana uztea.</p>	75	44,1	30,9
<p>20a) Animaliak dituzten zenbait herritarrek esan dute indarrean dagoen araudia ez dutela ezagutzen.</p> <p>20b) Animaliak dituzten zenbait herritarrek esan dute ez dutela ezagutzen indarrean dagoen araudia. **</p> <p>20c) Animaliak dituzten zenbait herritarrek indarrean dagoen araudia ez dutela ezagutzen esan dute.</p>	100	35,5	64,5

<p>21a) Eremu publikoan bi hizkuntzen erabilera finkatzea beharrezkoa da, ezinbestekoa delako hizkuntza ahulenaren alde egitea herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. **</p> <p>21b) Eremu publikoan bi hizkuntzen erabilera finkatzea beharrezkoa da, hizkuntza ahulenaren alde egitea ezinbestekoa delako herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.</p> <p>21c) Eremu publikoan bi hizkuntzen erabilera finkatzea beharrezkoa da, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko hizkuntza ahulenaren alde egitea ezinbestekoa delako.</p>	87,5	36,6	50,9
<p>22a) ... baina oker geundeke, Europar Batasuneko erakundeetan sortzen den guztia hizkuntza ofizial guztietara itzultzea, hizkuntza guztiei zor zaien errespetua bermatzeko ezinbestekoa dela uste izango bagenu.</p> <p>22b) ... baina oker geundeke uste izango bagenu hizkuntza guztiei zor zaien errespetua bermatzeko ezinbestekoa dela Europar Batasuneko erakundeetan sortzen den guztia hizkuntza ofizial guztietara itzultzea. **</p> <p>22c) ... baina oker geundeke, hizkuntza guztiei zor zaien errespetua bermatzeko uste izango bagenu ezinbestekoa dela Europar Batasuneko erakundeetan sortzen den guztia hizkuntza ofizial guztietara itzultzea.</p>	87,5	48,4	39,1
<p>23a) Donostiako alkateak errauste plantaren behin betiko kokagunearen erabakia atzeratzeko bere taldearen arrazoiak aipatzen dituen idatzi bat eraman zuen atzoko bilerara.</p> <p>23b) Donostiako alkateak idatzi bat eraman zuen atzoko bilerara, errauste plantaren behin betiko kokagunearen erabakia atzeratzeko bere taldearen arrazoiak aipatzen dituena.</p> <p>23c) Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, aipatzen duena zein arrazoi dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean. **</p>	62,5	11,8	50,7
<p>24a) Ildo berari jarraiki, badira datu pare bat hona aldatuko ditugunak, merezi duela uste baitugu kontuan hartzea lehen hizkuntzak eta gune soziolinguistikoak etxean erabiltzen den hizkuntza finkatzerakoan duten eraginaren neurria.</p> <p>24b) Ildo berari jarraiki, badira datu pare bat hona aldatuko ditugunak, lehen hizkuntzak eta gune soziolinguistikoak etxean erabiltzen den hizkuntza finkatzerakoan duten eraginaren neurria kontuan hartzea merezi duela uste baitugu.</p> <p>24c) Ildo berari jarraiki, badira datu pare bat hona aldatuko ditugunak, uste baitugu merezi duela kontuan hartzea lehen hizkuntzak eta gune soziolinguistikoak etxean erabiltzen den hizkuntza finkatzerakoan duten eraginaren neurria. **</p>	87,5	26,9	60,6
1. koadroa. Azterturiko item guztiak eta haien emaitzak (adituen eta ikasleen taldeak).			

2. koadroa. Atzerakarga txikieneko hurrenkerak, adituen taldeko kide guzietatik hobetsiak (% 100ek).			
ITEMAK	ADIT. (%)	GAZT. (%)	ALDEA (%)
<p>4c) «No es lo mismo hablar en clase de mates, o hablar de mates en clase». Zalantzarik gabe, bigarrenaren aldeko apustu garbia egiten du autoreak, eta azpimarratzen du elkarrizketa horrek nola laguntzen dien ikasleei matematikaren gainean gero eta konplexuagoak eta osatuagoak diren ezagutza eskemak eraikitzen. **</p>	100	25,8	74,2
<p>5c) Ondoko adibidean ikusi ahal izango dugu ikasleek nola parte hartzen duten ahozko elkarrekintzaren bidez ikaskuntza objektuaren edo ikasi beharreko edukiaren transformazioan. **</p>	100	30,6	69,4

8b) Egile horiek uste dute baliagarria eta beharrezkoa dela beste printzipio bat ere izatea: autonomiaz ikasteko eta irakasteko modu askoren objektu bihurtzea ahozko hizkuntza. **	100	44,1	55,9
14a) Eskola instituzioak paper garrantzitsua betetzen du hitzunen komunikazio konpetentzia garatzeko orduan, zeren bertan zehazki planifika baitaitezke jardunak ikasle konkretuek sarbidea izan dezaten komunikazio-jardun bereziagoak ikasteko. **	100	34,9	65,1
20b) Animaliak dituzten zenbait herritarrek esan dute ez dutela ezagutzen indarrean dagoen araudia . **	100	35,5	64,5
2. koadroa. Atzerakarga txikieneko hurrenkerak, adituen taldeko kide guztiek hobetsiak (% 100ek).			

3. koadroa. Atzerakarga txikieneko hurrenkerak, adituen taldeko kide guztien % 87,5ek hobetsiak.			
ITEMAK	ADIT. (%)	GAZT. (%)	ALDEA (%)
4c) «No es lo mismo hablar en clase de mates, o hablar de mates en clase». Zalantzarik gabe, bigarrenaren aldeko apustu garbia egiten du autoreak, eta azpimarratzen du elkarrizketa horrek nola laguntzen dien ikasleei matematikaren gainean gero eta konplexuagoak eta osatuagoak diren ezagutza eskemak eraikitzen. **	100	25,8	74,2
5c) Ondoko adibidean ikusi ahal izango dugu ikasleek nola parte hartzen duten ahozko elkarrekintzaren bidez ikaskuntza objektuaren edo ikasi beharreko edukiaren transformazioan. **	100	30,6	69,5
7c) Hizkuntza eta curriculumeko ikasgaiak integratzeak esan nahi du ikasleak aukerak izango dituela esanahia eta hizkuntza forma negoziatzeko. **	87,5	17,2	70,3
8b) Egile horiek uste dute baliagarria eta beharrezkoa dela beste printzipio bat ere izatea: autonomiaz ikasteko eta irakasteko modu askoren objektu bihurtzea ahozko hizkuntza. **	100	44,1	44,1
14a) Eskola instituzioak paper garrantzitsua betetzen du hitzunen komunikazio konpetentzia garatzeko orduan, zeren bertan zehazki planifika baitaitezke jardunak ikasle konkretuek sarbidea izan dezaten komunikazio-jardun bereziagoak ikasteko. **	100	34,9	65,1
20b) Animaliak dituzten zenbait herritarrek esan dute ez dutela ezagutzen indarrean dagoen araudia . **	100	35,5	64,5
21a) Ereku publikoan bi hizkuntzen erabilera finkatzea beharrezkoa da, ezinbestekoa delako hizkuntza ahulenaren alde egitea herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. **	87,5	36,6	50,9
22b) ... baina oker geundeko uste izango bagenu hizkuntza guztiei zor zaien errespetua bermatzeko ezinbestekoa dela Europar Batasuneko erakundeetan sortzen den guztia hizkuntza ofizial guztietara itzultzea. **	87,5	48,4	39,1
24c) Ildo berari jarraiki, badira datu pare bat hona aldatuko ditugunak, uste baitugu merezi duela kontuan hartzea lehen hizkuntzak eta gune soziolinguistikoak etxean erabiltzen den hizkuntza finkatzerakoan duten eraginaren neurria . **	87,5	26,9	60,6
3. koadroa. Atzerakarga txikieneko hurrenkerak, adituen taldeko kide guztien % 87,5ek hobetsiak.			

4. koadroa. Atzerakarga txikieneko hurrenkerak, adituen taldeko % 75ek hobetsiak.			
ITEMAK	ADIT. (%)	GAZT. (%)	ALDEA (%)
4c) «No es lo mismo hablar en clase de mates, o hablar de mates en clase». Zalantzarik gabe, bigarrenaren aldeko apustu garbia egiten du autoreak, eta azpimarratzen du elkarrizketa horrek nola laguntzen dien ikasleei matematikaren gainean gero eta konplexuagoak eta osatuagoak diren ezagutza eskemak eraikitzen. **	100	25,8	74,2
5c) Ondoko adibidean ikusi ahal izango dugu ikasleek nola parte hartzen duten ahozko elkarrizketa bidez ikaskuntza objektuaren edo ikasi beharreko edukiaren transformazioan. **	100	30,6	69,4
6c) Eta gero, buruketa horren talde irakurketa egin zuten. Talde irakurketa horren helburua zen ziurtatzea ikasle guztiek buruketa ulertu zutela. **	75	11,3	63,7
7c) Hizkuntza eta curriculumeko ikasgaiak integratzeak esan nahi du ikasleak aukerak izango dituela esanahia eta hizkuntza forma negoziatzeko. **	87,5	17,2	70,3
8b) Egile horiek uste dute baliagarria eta beharrezkoa dela beste printzipio bat ere izatea: autonomiaz ikasteko eta irakasteko modu askoren objektu bihurtzea ahozko hizkuntza. **	100	44,1	55,9
11a) Nik ez dut inoiz ere ikusi irakaslerik bere irakasgaiari garrantzi txikia ematen dionik. **	75	12,4	62,6
12a) Ez da modu bat bakarria kontzeptu hori ulertzeko, baina denak bat datoz esatean oinarriko kompetentziak funtsezkoak direla jende ororentzat eta jendarte guztiarentzat . **	75	47,8	27,2
14a) Eskola instituzioak paper garrantzitsua betetzen du hitzunen komunikazio kompetentzia garatzeko orduan, zeren bertan zehazki planifika baitaitezke jardunak ikasle konkretuek sarbidea izan dezaten komunikazio-jardun bereziagoak ikasteko. **	100	34,9	65,1
17b) Badugu garaia pentsatzen hasteko hurrengo denboraldian ekipoaren entrenatzailea nor izango den . **	75	18,8	56,2
18c) Baina ezinbestekoa dugu kontuan hartzea , frankismoaren hizkuntza-zapalketarekin batera, herri-aginteen utzikeria demokrazia aurretik betidanik ohikoa izan zela euskararen erabilerrari zegozkion kontuetan. **	75	38,7	36,3
19a) Baina euskarak gizartean urteetan eta mendeetan izan duen atzerakadaz dihardugula, ezinbestekoa delakoan gaude hemen bertan esana uztea , faktore politiko eta instituzionalen ondoan, faktore ekonomiko eta sozialek ere badutela eragina . **	75	44,1	30,9
20b) Animaliak dituzten zenbait herritarrek esan dute ez dutela ezagutzen indarrean dagoen araudia . **	100	35,5	64,5
21a) Ereku publikoan bi hizkuntzen erabilera finkatzea beharrezkoa da, ezinbestekoa delako hizkuntza ahulenaren alde egitea herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. **	87,5	36,6	50,9
22b) ... baina oker geundeke uste izango bagenu hizkuntza guztiei zor zaien errespetua bermatzeko ezinbestekoa dela Europar Batasuneko erakundeetan sortzen den guztia hizkuntza ofizial guztietara itzultzea. **	87,5	48,4	39,1
24c) Ildo berari jarraiki, badira datu pare bat hona aldatuko ditugunak, uste baitugu merezi duela kontuan hartzea lehen hizkuntzak eta gune soziolinguistikoak etxean erabiltzen den hizkuntza finkatzerakoan duten eraginaren neurria . **	87,5	26,9	60,6
4. koadroa. Atzerakarga txikieneko hurrenkerak, adituen % 75ek hobetsiak.			

2.2.4. Interpretazioa eta gogoeta

Ikerketa-saio honen bidez erdietsi diren datuek nabariki adierazten dute badirela irizpide desberdinak aztertutako inkestatu taldeetako kideen artean euskarazko prosaren atzerakargari buruz. Kideen artean ez ezik, globalki hartuta, bi taldeen artean ere desberdintasunak badirela ikus daiteke ederki. Ikasleen taldean kideek nahiago dituzte atzerakarga handiagoko ordenamenduak, eta gure ustez zurrunago jokatzeke joera ageri da; ikasleen artean, oro har, aisa hurbilagotik segitzen dira joan den mendean batez ere Hegoaldean hedatu ziren joerak, erranaldiko elementuak modu zurrunean antolatzekeak: oro har, *Erderismos*-en markaturiko bideari jarraitzen diotenak, edo eredu *idealista-idiosinkratikoaren* ildokoak (Maia, 2014). Horrek kontrastea egiten du adituen taldean ikus daitekeen joerarekin, adituek nahiago baitituzte atzerakarga txikiagoko aukerak. Kontraste horrek nolabaiteko «desfasea» adierazten du bi taldeen emaitzen artean, eta bidea ematen digu interpretatzeko badela bilakaera afera honetan: gazteek «lehengo» orientabideak dituzte gidari, baina adituek, kontrastean, aisa onartzen (edo hobesten) dituzte hurrenkera batzuk *Erderismoseko* jarraibideekiko «heterodoxoagoak».

Lehen ere erran dugu adituen taldeko kideak hautatzeko orduan ez dela ezein irizpide estatistiko erabili, eta horrek nabariki mugatzen duela talde horren «ordezkaritasuna», jendarteko ezein kolektibo edo talde osori begira. Horregatik, talde horri ez diogu egotzi nahi hizkuntza erabiltzaile helduagoen eta adituagoen ordezkari zehatza; ez dugu ondorioztatzen ahal ikerketa honek erakusten duenik harako «zenbat eta adituago/helduago, orduan eta atzerakarga txikia(go)-aren zaleago» bezalako baieztapen osokorik. Baina goi-mailako adituen artean baldin badira pertsona batzuk erakusten dutenak badutela joera atzerakarga txikiagoa aukerak hobesteko, horrek berak islatzen du jendartean badabiltzala irizpide batzuk hitz-ordenari dagokionez batera ez datozenak ikuspegi edo eredu *idealista-idiosinkratiko* izendatu izan den joerarekin (Maia eta Larrea, 2012; Maia, 2014). Pentsa liteke, bertaldea, hipotesi gisa bederen, ezen inkestaturiko adituek ikasleen aldean duten «aditutasun» handiagoko eragiten ahal diela atzerakarga txikiagoko aukerak hobesteko edo behintzat onesteko; alegia, testu konplexu azalpenezko eta argudiozkoekin eguneroko lanean gehiago jardun behar izanak berak eraman ahal izan dituela aditu horiek gogoeta egitera atzerakargaren komunikazio-balioaz, eta, beraz, hobeki hartzea atzerakarga txikiagoko aukerak.

Gainera, ikerketaren atal honetan jasoriko datuak koherente datoz ikerlanaren lehen urratseko emaitzekin: bi ataletan ariketa modu desberdinak izanik eta ikasle taldea ere desberdina izanik, halere bietan adituek erakutsi dute hagitzez malgutasun handiagoa, baita joera ere, atzerakarga txikiagoko hurrenkerekin alde, ikasle gazteekin baino.

Hartara, bi inkestetan lortutako datuek uzten digute bidea pentsatzeko jendartean badela bilakaera bat hitz-ordenaren aferan: ikasleen taldeak erakusten duen jokabidea *joera edo eredu idealista-idiosinkratikoan* sartzen ahal litzateke gehienbat, eta adituen jarrerak, berriz, *arian ariko egokitze doituaren* jokabidea adieraziko luke norabide bezala (ikus Maia eta Larrea, 2013; Maia, 2014). Horrela balitz, pentsa liteke euskaraz ari den jendartean joera nagusi bat gertatzen ari dela atzerakarga

txikitzeko, eta esplikabide horren arabera, azterketa honetan kolaboratu duten adituak aitzinago joanak izanen lirateke iritzi-aldatzeko prozesu horretan, ezen ez unibertsitario gazteen taldea. Hala balitz, bertzalde, adituen eta gazteagoen arteko «desfase» horren arrazoi nagusietako bat izan liteke ikasleek islatuko luketela, bere jardunaren edo behintzat iritzien bidez, zer-nolako irizpide murrizgarriak izan dituzten beren formazio-urteetan.

Lan honetan kolaboratu duten ikasleak Lehen Hezkuntzako irakasle izateko hasierako prestakuntzan ari ziren ikersaio honetan eskuzabal lagundu zigutenean, eta maila horretako irakaslegaien lagin adierazgarritzat jo daitezke. Euskarazko erranaldiko elementuen ordenaz lan honetan islatu duten joera nahiko kontraste bizioan dago adituen taldeko kideen iritziekin, eta horrek eramaten gaitu berriz ere pentsatzera zenbateko garrantzia duen irakasleen prestakuntzak, oro har, eta bereziki gai honetan ere eguneratua egoteak, haien lana erabakigarria baita euskararen garapenari begira.

Ikerketa honetan bildu ditugun datuek eta jaso dugun ikuspegiak iradokitzen digute ezen, nahiz eta munduko hizkuntza guziak berez bilakaera etengabea dauden, gaur egun euskararen kasuan eboluzioa biziagoa dela, zeren bertze hizkuntza indartsu batzuekin kontaktuan egoteak ekar diezaioketen eraginaz gainera, euskara bera ere egokitzen ari baita komunikazio-testuinguru desberdin batzuetara, non sarbide aski txikia izan duen berriki arte.

Guziaren buruan, lan honen goiburu den hasierako galderari erantzunez erranen genuke ezen ikersaio honetan azterturiko gazteek erakutsi dutela joera atzerakarga handiagoko hurrenkerak hobesteko, baina aldi berean uste dugu jaidura hori ez zaiela etorri barrengo sen berezi eta berezko bati segika, baizik eta hala izan **behar** dela irakatsi zaielako edo nolabait hala **ikas**i dutelako. Asmatuko ahal dugu zer hobetu behar dugun eta nola!

Bibliografia-erreferentziak

- Agirre, J.M. (2013): «Estilo jarraituaren alde», URL: <<http://31eskutik.com/category/jesus-maria-agirre/>> [2014/12/02].
- Alberdi, X. eta Sarasola, I. (2001): *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*, EHUAZ, Bilbo.
- Altube S. (1975 [1929]): *Erderismos*, Cinsa, Bilbo.
- Amuriza, X. (2012): *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako*, Lanku, Bilbo.
- Aristegieta X. (2009): «Euskarazko testuen komunikagarritasun-problema larriak», *Senez*, **37**, 103-141.
- Aristegieta, X. (2012): «Zenbait ohar euskarazko hitz-ordenari buruz», *Euskera*, **57-3**, 505-522.
- Berria (2006): *Estilo liburua*, Berria, Andoain.
- Cenoz J. eta Jessner U. (arg.) (2000): *English in Europe. The Acquisition of a Third Language*, Multilingual matters ltd., Clevedon.
- Crystal, D. (2004): *The language revolution*, Polity Press, Cambridge.
- Euskaltzaindia (1977): *El libro blanco del euskara*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , (2011): *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*, Euskaltzaindia, Bilbo.

- Eusko Jaurlaritza (1982): *Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko LEGEA, Euskararen erabilpena arauzkotzekoa*, 1982/12/16ko EHAA, 3.138-3.146, URL: <http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=19821216&a=198201955> (sarrera, 2014-12-15).
- Eusko Jaurlaitza - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila - HABE (2005 [2001]): *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*, EJAZN, Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2010): *Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu kurrikularrak Euskal Autonomia Erkidegoan*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- Gorter, D.; Zenotz, V.; Etxague, X. eta Cenoz, J. (2014): «Multilingualism and European Minority Languages: The Case of Basque», in D. Gorter, V. Zenotz eta J. Cenoz (arg.), *Minority Languages and Multilingual Education. Bridging the Local and the Global*, Springer, New York, 201-220.
- Hidalgo, V. (1995): *Hitzen ordena euskaraz*, doktore-tesia, UPV-EHU, URL: <http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/bittor_hidalgo.pdf>.
- , (2002): «Hitzen ordena esaldian», *Senez*, **25**, 75-109.
- IVAP-HEAA (2005): *IVAPeko estilo-liburua*, IVAP, Vitoria-Gasteiz.
- Kaltzakorta M. (2007): *Prosa komunikagarriago egiten (zenbait proposamen)*, UEU, Bilbo
- Lasagabaster, D. (2000): «Three Languages and Three Linguistic Models in the Basque Educational System», in J. Cenoz eta U. Jessner (arg.), *English in Europe. The Acquisition of a Third Language*, Multilingual Matters, Clevedon, 179-197.
- Maia, J. (2014): «Euskararen hitz-ordenaren norabidea: idealismo ideologikotik pragmatismo komunikatibora», *Fontes Linguae Vasconum*, **117**, 121-168.
- Maia, J. eta Larrea, K. (2012): «En el mar de la globalización, ¿hacia dónde remamos en la sintaxis vasca?», in A. LLanes Baró (koord.) et alii (arg.) (2013), *La lingüística aplicada en la era de la globalización*, Lleidako Unibertsitatea, Lleida, 421-426.
- , (2013): «Hitzen hurrenkera "gogortuegia" erabiltzen ote dugu idatzian?», in X. Alberdi, eta P. Salaburu (arg.), *Terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira*, EHUAZ, Bilbo, 85-97.
- Mitxelena, K. 2011 [1981]: «Galdegaia eta mintzagaia euskaraz», in J.A. Lakarra (apail.), *Luis Mitxelena Obras Completas VII*, ASFV Julio de Urquijo, LX: 335-361.
- Nafarroako Gobernua (1986): *18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, euskarari buruzkoa*, URL <http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/IndicesPorDepartamentos/Educacion/Vascuence/LF181986-04.htm>.
- Torrealdai, J.M. (2014): «Batasunaren bidea urratzen. Txillardegiren eragintza praktikoa». *Jakin*, **204**, 11-94.
- Zubimendi, J.R. eta Esnal, P. (1993): *Idazkera-liburua*, Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz.

1. eranskina: inkestatuei eman zitzaizkien jarraibideak zuzentze-lana egiteko (1. faseko inkesta)

Esaldiak zuzentzeko, oker baldin badira.

Ondoko orrietan esaldi batzuk ikusiko dituzu. Horietako batzuetan (edo askotan) beharbada hutsen bat edo okerren bat izan daiteke. Hauxe da eskatzen zaizuna:

Zuzendu, mesedez, esaldi horietan ikusten dituzun hutsak.

Errepara iezaiozu batez ere esaldietako hitzen ordenari; hau da, ea esaldietako hitzen ordena onargarria den edo ez. Onargarria ez bada, zuzendu ezazu eta jarri zure ustez zuzena litzatekeen forma eta ordena.

Zuzenketarako puntuzko lerro bat duzu esaldi bakoitzaren azpian, eta hartan jar dezakezu zuzenketa-proposamena. Dena dela, denborarik ez galtzeko, ordena aldaketak gezien bidez ere adieraz ditzakezu, dauden tokian.

Eskerrik asko zure laguntzagatik!!!

2. eranskina: inkestatuei idatziz emaniko jarraibideak (ikerketaren 2. ataleko inkesta)

Ordenatu esaldiak zuzentasunaren arabera

Ondoko esaldiak hiru esaldiko multzotan bilduta daude. Multzo bakoitzeko esaldiek esanahi bera dute, oro har, baina, ikusiko duzun bezala, osagaiak ordena desberdinetan jarrita daude (kasu batzuetan hitzen bat edo beste ere aldatzen da).

Hauxe eskatzen zaizu: azter ezazu esaldi multzo bakoitza eta esan hiru aukeretatik zein ordenatan onetsiko zenituzkeen esaldiak.

Hobespena azaltzeko, honela egin behar duzu:

- baloratu, 1etik 3ra, esaldiaren zuzentasun maila: hobekien antolatua den esaldiari 1 jarri, eta okerrenari 3.
- hoberenari beti 1 jarri eta gero hurrengoari 2 eta hurrengoari 3.

Balorzio hori jarri esaldiaren eskuinaldean den koadroan.

Bi esaldik onepen maila bera izan dezakete: biak 1 izan daitezke, baldin eta hoberenak badira, edo biak 2 izan daitezke, beste bati 1 jarri bazaio.

Multzo bakoitzeko hiru esaldiek ere balorzio bera izan dezakete.

Aukera bat ere gustuko ez baduzu, beste esaldi bat ere proposatu dezakezu, eta gero ontasun mailaren arabera ordenatu, goian esaniko ohar hauei jarraituz.

Eskerrik asko zure laguntzagatik!!!

